

Osoko bilkura

Donostia, Luis Villasante Euskararen Ikergunea

2014ko abenduaren 19an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Mujika, Alfontso,
Osa, Erramun,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Jose Irazu «B. Atxaga»k ahala Andres Urrutiari; Jaber Kaltzakortak ahala A. Urrutiari;

Patxi Salaberrik ahala A. Urrutiari; Patxi Zabaletak ahala Andres Iñigori.

Osoko bilkura Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean hasi da, goizeko 10:00etan, ezkerreko zutabeen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta berorien ahalak irakurri ditu. Horiek horrela, quoruma badela egiaztatu ondoren, Euskaltzaindiaren abenduko Osoko batzarrari hasiera eman zaio.

Idazkariordeak eguneko programa azaldu du: Osoko batzarra hamabietan amaitu eta 12:30ean Ageriko bilkura egingo da, Joan Martí Castell ohorezko euskaltzainari Akademiaren ikurra eta diploma emateko.

1. Osoko bilkurako (2014-11-29) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

Bi ohar jaso dira: batetik, Jose Luis Lizundiak Osoko bilkuran 11:00etan, ia

bukaeran azaldu zela jaso dadin eskatu du; bestetik, Miren Azkaratek 2. puntuko azken-aurreko paragrafoaren amaieran esaldi bat gehitzeko eskatu du («M. Azkaratek ez du inola ere zalantzan jartzen Hiztegi Batuko lantaldeak prestalana ongi egin duela Hiztegi Batuaren hasiera-hasieratik gaur arte»).

Bi zuzenketak onartu dira Osoko bilkuran.

Gauzak horrela, bestelako oharrak ez denez, bilera-agiria onartu da.

2. Hiztegi Batua.

2.1. A letrari aurkezturiko iruzkinak aurkeztu eta erabaki, hala erabakiko balitz. Andres Iñigo, Miren Azkarate eta Patxi Uribarren euskaltzainek oharrak egin dituzte.

A. Sagarna eta M. Urkia Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arduradunek hogeita zazpi orrialdeko *Hiztegi Batua 2. itzulia: A letra (zerrenda osagarriak)* izenburua daraman txostena aurkeztu dute. Txosten honen lehenengo zazpi orrialdeetan, oharrak jaso ez duten hitzak, besterik gabe onartzekoak edo e. marka dutenak (guztira berrehun eta hogeita hamar forma) jaso dira; zortzigarren orrialdetik hamabosgarren orrialdera (biak barne) lehendik araututako forma osatuak (guztira berrogeita hamabi) ageri dira; hamaseigarren orrialdetik hogeita bigarren orrialdera (biak barne) isiltzekoak diren formak ageri dira (guztira zazpiehun eta hirurogeita hamabost); hogeita hirugarren orrialdetik hogeita bostera euskaltzainek oharretaturiko hirurogeita hamabost forma ageri dira. Azken hauek, 9 orrialde dituen *Hiztegi Batua 2. itzulia: A letra. Euskaltzainen oharrak. Lantaldearen proposamenak* izenburutzat daraman txostenean xeheago landu dira. Izan ere, bertan, jasotako oharrak, eginiko proposamenak, lantaldearen datuak eta proposamenak jasotzen dira; hogeita seigarren eta hogeita zazpigarren orrialdeetan, lantaldeak erabaki gabe utzitakoak (eta euskaltzainek ere oharrak gabe utzitakoak), Onomastikakoekin argitzekoak eta Onomastikarentzat uztekoak ageri dira.

M. Azkaratek ohargileek eginikoa are hobeto ulertzeko, ohar osoak hileko karpetan jasotzea eskatu du. A. Sagarnak M. Azkarateri ohar horiek euskaltzainei hemendik aurrera helaraziko zaizkiela esan du.

Hiztegi Batuko lantaldeak proposatutakoari jarraikiz, oharrak jaso ez eta onartze-koak edo e. marka duten formak onartu dira. Nolanahi ere, ohar bakarra egin da. Izan ere, *altxamendu* sarrerako adibidea aldatzeko eskatu da, *frankistari* forma kendu eta «Altxamenduaren aurka borrokatu ziren» utzita. Era berean, lehendik araututako forma osatuak ere onartu dira. Halaber, oharrak jaso ez eta isiltzekoak direnak

isiltzea ere erabaki da. Amaitzeko, erabaki gabe utzitakoak ez sartzea erabaki da, bai eta Onomastika batzordearekin argitu eta haien esku utzi beharrekoak ere.

Ondoren, *Hiztegi Batua 2. itzulia: A letra. Euskaltzainen oharrak. Lantaldearen proposamenak* izenburua daraman txostena jorratu du M. Urkiak. Gaurko Osoko bilkuran lehen zazpi orrialdeak aztertu dira, azken bi orrialdeak urtarrileko Osoko bilkurarako utziz.

Hiztegi Batuko lantaldea ohargileek eginiko proposamen gehienekin ados dagoenez gero, proposamenak onartu dira. A. Iñigok *atiko* «oina» baino gehiago «solairua» dela esan du. M. Azkaratek ere *atikoari* buruz zerbait adieraztea komeni dela gaineratu du. Andres Urrutiak *atiko* eta *duplex* hitzen arteko ezberdintasunaz aritu da, *auditorretza-aditegi*, eta *autentikoaren* bi adierak ere azpimarratu ditu. Ohargileen oharrak onartu dira.

A. Arejitak egoki deritzo proposamenari, eta bai *astintze* eta bai *astindu* ere erabiltzen direla esan du. Bestalde, *-tze* atzikiaren erabileraz, P. Goenagak gogoratu du bere garaian jada K. Mitxelena azpimarratu zuela euskarazkoa ingelesezko *-ing* atzikiaren parekoa dela, eta, hor oinarriturik, behar denean, berak sarbidea emango liokeela *-tze* askori. P. Uribarrenek berak ere *-tzeri* sarbide are zabalagoa emango lioke (*pozte*, *alarguntze* eta abar). M. Azkaratek ere *azkartze* eta *astintze* bezalakoak ere sartuko lituzke. A. Arejitak ohartarazi du *-tze* beste elementu batzuekin ere erabil daitekeela, eta hori sormenaren araberakoa izaten dela, eta Euskaltzaindiak etsenpluen atzetik joan behar duela. Bere aldetik, P. Goenagak hitz horien artean *astintze* eta *astindu* erakoak bereizi beharra gogorarazi du. M. Urkiak argitu du, dauden ahalbideak gorabehera, taldeak orain arteko irizpideei kasu eginez lan egin duela.

2.2. Zerrenda osagarriak (aroak, arrazak, diru zaharrak eta dibisak) aurkeztu. M. Urkiak aurkeztu eta azaldu ditu, horretarako kontuan harturiko iturriak, orain arteko testugintzak (liburuak, entziklopediak, prentsa eta abar) eta irizpideak gogoratuz. Diru eta dibisei doakienez, bai zahar edo historikoak eta bai oraingoak ere kontuan izan dituztela esan du, eta, adibidez, *dolar* hitzaren etsenplua jarri du, deitura orokor berberarekin herri batzuetan tokian tokiko izenondo bereizgarria erabiltzen dutela argituz. Antzeko xehetasunak eman ditu, aro eta animalien arrazen izenatarako ere.

Proposamen horri buruzko oharrak otsailaren 19rako bidali beharko dira.

3. Exonomastika: Europako Antzinateko herriak: Herri barbaroak aurkeztu. Ondoren, Exonomastika batzordearen izenean, Alfontso Mujika batzordeko idazka-

riak eta euskaltzain urgazleak batzarturiko euskaltzainak agurtu eta puntu honetarako ekarriko zerrendak azaldu ditu. Era berean, izen horiek jasotzeko kontsultatu diren obrak eta horien artetik erabiliriko irizpideak ere gogoratu ditu, era bereko orain arteko zerrendetan aspaldian finkaturiko bidearekiko koherentzia berretsiz.

Oharrak eta ekarpenak bidaltzeko, euskaltzainek otsailaren 19ra arteko epea izango dute.

4. Esku artekoak.

4.1. Gabriel Aresti kultura elkartearen eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena. G. Arestiren lanak, ondarea eta obrak ezagutarazteko asmoz, Euskaltzaindiak eta Gabriel Aresti Kultura Elkartek lankidetzeta-hitzarmena sinatu dute abenduaren 4an, Bilbon. Hitzarmenaren testuan jaso denez, bi erakundeok «Gabriel Arestiren obra osorik edo zatika berrargitaratuko dute, eta hitzaldiak, erakusketak eta jardunaldiak antolatzeke borondatea dute, bai eta haren obra eta ekarria tesuinguruan kokatzeko bestelako adituen ekarpenak bilatuko eta argitaratuko ere». Elkarlan horren lehenbiziko emaitza abenduaren 4an aurkeztu zen jendaurrean.

4.2. Euskararen Aholku Batzordeko (EAB) batzorde-atal bereziak. Eusko Jaurlaritzak eginiko eskariari erantzunez, Euskaltzaindiko Zuzendaritzak, 2014ko abenduaren 10ean eginiko bilkuran, EABko batzorde-atal bereziatarako ondoko hauek proposatu ditu:

- Euskara 21 batzorde-atala: Sagrario Aleman diruzaina eta Sustapen batzordeburua eta Erramun Osa Sustapen batzordeko idazkaria eta Euskaltzaindiko idazkariordea.
- IKT batzorde-atala: Andoni Sagarna euskaltzain osoa, Gipuzkoako ordezkaria eta Euskaltzaindiko IKT batzordeburua.
- Lege-garapenerako batzorde-atala: Andres Urrutia euskaltzainburua.

4.3. R. M. Azkue Literatura Sariak, epaimahaiko kideak. Literatura Ikerketan Batzordea entzunda, Euskaltzaindiko Zuzendaritzak ondoko hauek proposatzea erabaki du, 2014ko abenduaren 10ean eginiko bilkuran:

- Epaimahaikideak (A – Maila): Yolanda Arrieta Malaxetxebarria, Igone Etxebarria Zamalloa eta Manu Lopez Gaseni.
- Epaimahaikideak (B – Maila): Patxi Zubizarreta, Amaia Jauregizar Ormaetxea eta Jabier Kaltzakorta Elortza.

Eginiko proposamenak onartu dira Osoko bilkuran.

4.4. .eus, urratsen berri eman. Euskararen hizkuntza-erkidegoa hemen nola nazioartean are ikusgarriago eta nabariago egiteko sorturiko .eus domeinua erabiltzen hasiko da Euskaltzaindia urte honen hondarretik aurrera.

Zazpi urte luze joan dira .eus domeinuak bere ibilbideari ekin zionetik. Euskaltzaindiak sorreratik bertatik parte hartu du proiektuan. Akademiak 2007. urtearen bukaeran izan zuen lehenbizikoz .eus domeinua sortzeko ekimenaren berri. Ondoren, 2008ko urtarrilaren 17an, ekimen horretan partaide izateko deituak izan ziren erakundeak bildu ziren, horien artean Euskaltzaindia. Andoni Sagarna IKT batzordeburua eta euskaltzaina izan zen Euskaltzaindia ordezkatu zuena. Bilkura horretan parte hartu zutenek .eus elkartearen Zuzendaritza batzordea hautatu zuten eta Euskaltzaindia batzorde horren buru izatea erabaki zuten. 2012an, elkarteak Fundazioa sortu zuen, egitura juridiko hori beharrezkoa zela ikusi zelako. Euskaltzaindia da Fundazioaren buruzagitza duena eta J. M. Torrealдай da Euskaltzaindiak Akademia ordezkatzeko izendaturikoa.

Domeinuak lortzeko prozesua asko luzatu da, domeinuak erabiltzeko baimenak ematen dituen ICANN erakundeak oso protokolo konplexua definitu zuelako. Euskaltzaindiak domeinuaren erregistroarekin arazo tekniko batzuk izan ditu, eta orain arte ezin izan du domeinu hori erabili. Baina arazo guztiak bideratu direnez gero, .eus erabiltzen hasiko da Euskararen Akademia.

4.5. Gaur banatu diren liburuak. Gaur lau argitalpen banatuko dira.

- **Aniztasunean bat eginik?** (*Hermes* 48). Euskaltzaindiak eta Sabino Arana Fundazioak lankidetzan argitara emanikoa (2014ko abenduaren 12an aurkeztua). Ale berezi honek, 2014ko otsailean, Bilbon, 2013ko irailaren 11n Europako Parlamentuak onarturiko **Desagertzeko arriskuan dauden Europako hizkuntzei eta Europar Batasuneko hizkuntza-aniztasunari buruzko txostena** aztertzeko bi erakundeen artean antolatu zuten mintegiko lan nagusiak jasotzen ditu, bai eta Ebazpena ele bitan ere (euskarazko itzulpena Eneko Oregi euskaltzain urgazleak paratu du).
- **Gabriel Arestiren Harri eta Herri.** Gabriel Aresti kultura elkartearen eta Euskaltzaindiaren artean argitaratua. Kutxa berean bi liburu ageri dira: batetik, Gabriel Arestik duela 50 urte argitara emaniko liburua; bestetik, G. Arestiren garaia, ekarpenak zein bestelako testigantzak kontuan hartuta, hainbaten ekarpenak eta testigantzak. X. Kintanak koordinatu du argitalpen honen edizioa.
- **Euskera** agerkariaren zenbaki arrunta eta ikerketa zenbakia. Lehenbizikoan, Euskaltzaindiak 2013. urtean zehar eginikoa jasotzen da (batzar-agiriak, eki-

taldiak, hilberri txostenak eta abar), bai eta Nafarroan Jagon sailak antolaturiko XVIII. Jagon jardunaldian aurkezturiko txosten nagusiak ere. Bigarrean, besteak beste, Literatura Ikerketa batzordeak antolaturiko jardunaldietan aurkezturiko txostenak eskaintzen dira. Bi ale hauek Baionako ordezkarietan aurkeztu ziren, 2014ko abenduaren 11n.

4.6. Hurrengo bilkurak. Osoko bilkurak, 2014ko azaroaren 29an, Markina-Xemeinen onarturiko urteko egutegian ageri denez, 2015eko urtarrileko Osoko eta Ageriko bilkurak Bilbon egingo dira, egoitzan, urtarrilaren 30ean.

Eta besterik ez dela, 12:30ean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Donostian, 2014ko abenduaren 19an

Joan Martí i Castell ohorezko euskaltzainari diploma eta ikurra emateko, Ageriko bilkura

Donostian, Euskaltzaindiaren Luis Villasante Euskararen Ikergunean, eguerdiko 12:30ean, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du, 2014ko maiatzaren 30ean, Gipuzkoako Foru Aldundian eginiko Osoko bilkuran ohorezko euskaltzain izendaturiko Joan Martí i Castell-i Akademiaren diploma eta ikurra emateko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Adolfo Arejita Iker sailburua, Jean-Baptiste «Battittu» Coyos Jagon sailburua, Aurelia Arkotxa, Miren Azkarate, Patxi Goenaga, Andres Iñigo, Beñat Oiartzabal, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Andoni Sagarra, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren eta Mikel Zalbide.

Euskaltzain ohorezkoak: Frantziska Arregi eta Joan Martí i Castell.

Euskaltzain urgazleak: Miriam Urkia.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea.

Euskaltzaindikoko langileak: Lutxi Alberdi, Jon Artza, Maixa Goikoetxea, Iñaki Kareaga eta Amaia Okariz.

2014ko maiatzaren 30ean, Euskaltzaindiak Donostian egin zuen Osoko bilkuran, 12 ohorezko euskaltzain berri izendatu zituen: Paulo Agirrebaltzategi, Anjel Aintziburu, Dionisio Amundarain, Xabier Amuriza, Xipri Arbelbide, Antonio Campos, Maite Idirin, Mixel Itzaina, Jon Landaburu, Joan Martí, Martin Orbe eta Manu Ruiz Urrestarazu. Ia guztiak jaso zuten diploma uztailaren 18an, Bilbon egi-

niko ekitaldian. Joan Martí, ordea, orduko hartan ez zuen joaterik izan. Hortaz, gaur etorri da Luis Villasante Euskararen Ikergunera, gainerako euskaltzainak bertan direla, diploma eta ikurra jasotzeko, euskaltzainburuaren eskutik.

Ekitaldiari hasiera Rafa Rueda musikariak eman dio, euskaltzain urgazle izan zen Gabriel Arestiren poema batekin.

Ondoren, Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkariak ongi etorria eman, Gabriel Arestik duela berrogeita hamar urte argitara emaniko *Harri eta herri* liburua gogora ekarri eta arautegiaren 39. artikulua dioena irakurri du. Era berean, 2014ko maiatzean, Donostian eginiko Osoko bilkuran ohorezko euskaltzain izendapena jaso zutenak gogorarazi ditu. Segidan, gaur Euskaltzaindiaren diploma eta ikurra jasoko dituen Joan Martí i Castell-en aurkezpen laburra egin du.

Joan Martí i Castell Tarragonan (Katalunia) jaio zen, 1945ean. Bartzelonako Unibertsitateko eta Erromako La Sapienzako Unibertsitateko doktorea (Filologia Erromanikoan eta *Lingue e Letterature Straniere*-an, hurrenez hurren). Hizkuntzalari-tza Diakronikoan, Hizkuntzen Historia Sozialean eta Soziolinguistikian eta Lexikografian aditua da. Tarragonako Rovira i Virgili Unibertsitatearen sortzaile, bertako lehen errektorea izan zen, bai eta Filologia Katalanaren saileko zuzendaria ere. Kataluniako eta Italiako hainbat unibertsitatetan ere irakasle aritu da. Institut d'Estudis Catalans-eko kide osoa da, eta 2002tik 2010era bertako Secció Filològica-ko burua izan zen. 30 liburu baino gehiago argitaratu ditu, katalan hizkuntzaren historia, gramatika eta erabilerari buruz, eta baita artikulua ugari ere. Bernard Etxepareren 1545eko *Linguae Vasconum Primitiae* liburua katalanera itzuli du (2013ko abenduan, Eusko Legebiltzarrak eta Euskaltzaindiak aurkeztua). Hainbat sari jaso du, besteren artean Tarragona Hiriko domina, eta hiri bereko Rovira i Virgili Unibertsitatearena ere.

Aurkezpenaren ondoren, euskaltzainburuak hitza Joan Martíri eman dio. Honen, Institut d'Estudis Catalans-en (IEC) sorrera, eginikoak eta esku artean dituenak azaldu ditu.

Institut d'Estudis Catalans 1907an sortu zen, Enric Prat de la Riba Kataluniako Mancomunitat erakundeko presidentearen ekimenez. Hasiere batean, *akademien Akademia Nazionale* izaera eman nahi izan zioten. Sail bakarra zuela, Secció Històrico-Arqueològica, abian jarri zen. 1911n, Secció Filològica eta Secció de Ciències sortu ziren. Gaur egun, bost sail ditu: Secció Històrico-Arqueològica, Secció Filològica, Secció de Ciències Biològiques, Secció de Ciències i Tecnologia eta Secció de Filosofia i Ciències Socials.

Jakina denez, Secció Filològica hizkuntza katalanaz arduratzen den erakunde araugilea da. Katalan hizkuntzaren lurralde osoa, herrialde katalanak aintzat hartzen ditu eta hiru arlo nagusitan egiten du bere lana: katalan hizkuntzari buruzko ikerlanak egiten ditu; hizkuntzaren kodifikazioa ezarri eta gainbegiratzen du; eta hizkuntza bera babesten du. Era berean, hiztegegintza eta gramatika arloetan ere oso lan sendoak dituztela esan du Martík, «Pompeu Fabrak gidatu zuen kodifikazio-lanari esker». *Diccionari de la llengua catalanaren* bigarren edizioa argitaratu eta 2015ean Gramatika instituzionalaren bigarren edizioak ikusiko du argia.

Araugintzari dagokionez, lau atal bereizten ditu Secció Filològicak: hizkuntza estandarra; neologismoen sortze lana (Neologia Behatokiaren bidez); terminologia (Terminologiaren Zentroaren bitartez); eta toponimia eta antroponimia. Lau arlo horietako emaitzek beste horrenbeste mailatan dute isla: ortografian, gramatikan, lexikografian eta onomastikan.

Bestalde, Secció Filològica lanean ari da munta handiko hainbat egitasmotan, besteak beste: *Diccionari del Català Contemporani o Diccionari descriptiu de la llengua catalana*, *Atlas lingüístic del domini català*, *Glossarium Mediae Latinitatis Cataloniae* edota Pompeu Fabraren lan guztien edizio kritikoa.

Mintzaldia amaitzeko, Joan Martík esker oneko hitzak izan ditu eta Euskaltzaindiaren eta Institut d'Estudis Catalans erakundearen barruan dagoen Secció Filològicaren arteko elkarlana eta loturak sendotzearen alde mintzatu da. «Egin dezakegu eta egingo dugu –esan du– euskararen eta katalanaren mesedetan; hori, gainera, euskal gizartearen eta gizarte katalanaren aldeko lana egitea da. Eta hori, unibertso linguistiko osoaren mesedetan aritzea ere bada».

X. Kintana idazkariak Joan Martí i Castell eta Andres Urrutia deitu ditu, azken honek, ohorezko euskaltzainari diploma eman eta Akademiaren ikurra jartzeko. Ondoren, Andres Urrutia euskaltzainburuak hitza hartu eta bi erakundeon arteko elkarlana indartzearen alde hitz egin du. Euskaltzaindiari dagokionez, «gure hizkuntza eta gure kulturaren alde lan egiten duen akademia gara gu eta, Joan Martík esan duenez, gero eta indartsuago izan behar dugu, euskal gizartean aldeko zerbitzua baita guk egiten duguna».

Euskaltzainburuaren hitzen ostean, Rafa Ruedak ohorezko euskaltzain berriaren omenez kanta bat kantatu du katalanez, ekitaldiari amaiera emanez, eguerdiko 13:30ean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria